

HONDARTZAKO BIDEAN. Piezen letrak

ERRANAK / ESAPIDEAK

- Kukuak San Joanetan kuku eta San Pedrotan mututu
- Kaka zaharra
- Sargori dago
- Sapa dago
- Gose naiz
- Goseak amorratzen nago
- Ez duzu erremediorik
- Zureak ez du izenik
- Tripa zorria hasi zait
- Pixagale naiz

JOLASA

Helduen hanketan trostan jolasteko

Astoaren kakagalea

Astoaren kakagalea, arre mando!
Astoaren kakagalea, arre mando!
Bitoria, Bitoria, han txibiri konkon!
Bitoria, Bitoria, han txibiri konkon!
Kon, kon, kon, kon! Kon, kon, kon, kon!
Astoaren kakagalea, arre mando!
Astoaren kakagalea, arre mando!

KANTUAK

Otsondoko katua

Otsondoko katua
Farolan ehiztari,

erne begi(ra)tzen dio
leihoko gaztari,
leihoko gaztari.

Antonio Bolonio tutulunberde
danbolinteroa,
orain Farolan dela
amerikanoa,
amerikanoa.

Arratoia fraile

Bat, bida, hiru, lau,
ezkontzen da mundu hau,
arratoia fraile,
kukua meza (e)maile.
Kukuki! Kukuki!
Katu zaharrari ipurdian milika (eg)in!

Kukuak kantatzen du

Kukuak kantatzen du
maiatzean ku-ku:
Ku-ku! Ku-ku!
Andreek badituzte
mila matrikulu.
Ku-ku!
Heste-mutur zulotik
sentitzen dutela.
Eta zergatik?
Ku-ku!
Txokolateagatik.
Ku-ku!

Mama goxoagatik.

Ku-ku!

Mistelagatik.

Lalala, lalala, lalala...

Lertsunak (lertsunak pasatzean kantatzeko)

Lertsunak, lertsunak,

aitzinekoak gibelera,

gibelekoak aitzinera.

Zoazte Erriberako mahatsetara!

Galen, galen (behiak maiatzean mendira eramatean kantatzeko)

Galen, galen, galen,

behiak heldu dira.

Lerroz, lerroz, lerro.

Denak gureak dira!